

INFORMAZIOAREN SEGURTASUN POLITIKA

Ulma Handling Systems (aurrerantzean, UHS) enpresaren oinarria **etengabeko lankidetzeta eta hobekuntza** ezaugarri bezala dituen profesional taldea da. Bere helburu nagusien artean, kudeaketaren kalitatea eta eraginkortasuna etengabe hobetzea dago, horretarako **informazio-sistemen erabilera eraginkorra** bermatzea funtsezkoa delarik. Horrek barne hartzen ditu bai informazioa modu seguruan partekatzea, bai berori babestea.

Horregatik, Zuzendaritzak:

- Informazioaren segurtasunari dagozkion **negozioaren helburuak** ezartzen ditu, helburu horiek Informazio-Segurtasunaren Kudeaketa Sistemaren (ISKS) Testuinguruaren eta Irismenaren parte direlarik.
- Konpromisoa hartzen du **garatutako informazioaren segurtasunaren kudeaketa sistemaren garapena gidatzeko**. Sistema horrek funtsezko helburu bat dauka: informazioaren segurtasunari dagozkion arriskuak desagerraraztea edo gutxitzea, erakundean erabiltzen den informazioaren **konfidentzialtasuna, osotasuna eta eskuragarritasuna** zainduz.
- Informazioaren segurtasuna **prozesu integral eta jarraitutzat** hartzen du. Segurtasun horren osagai izan behar dute bera egoki kudeatzeko beharrezkoak diren elementu tekniko, giza arloko, material eta antolakuntzako guztiak. Segurtasun-neurriak ezarri behar dira mehatxuak **gauzatzeko arriskua gutxitzeko**, eta, horrenbestez, balizko segurtasun-gorabeherak garai antzeman eta tratatzeko, eta erabilitako informazioari edo emandako zerbitzuei modu larrian ez eragiteko, horiek **berriz ezartzeko** aukera egon dadin.
- Ildo iraunkor eta oinarrizkoak ezartzen ditu **babes eraginkorra** lortzeko. UHSren informazioa prebentzioaren, antzematearen, erreakzioaren eta dinamismoaren ikuspuntutik erabiliz, babes hori **etengabe hobetzeko** asmoz.
- Aplikagarri zaion informazioaren segurtasunaren arloko **legeria** etengabe **betetzen dela** ziurtatuko du. Gainera, kasu bakoitzean UHSk bere egiten dituen beste betekizun batzuk gehituko dira.

Erakundeko arduradun guztiak informazioaren segurtasuna integratuko dute, beste edozein eginkizun bezala, agindutako gainerako eginkizunen ardura berarekin. Era berean, **langile guztiak** planifikatutako jarraibideak eta prozedurak **ezagutuko dituzte** eta horiek betetzeko **ardura izango dute**, eta informazioaren babesa hobetzeko iradokizunak egingo dituzte.

Hala sinatzen du, denen izenean



Stua. Alvaro Martinez de Lagos

UHSko Zuzendari Nagusia

2.1 berr.

2025ko otsailak 18